

## Crónicas del Bidasoa

“Luis de Urantz” Kultur Taldearen aldizkarian argitara berri da J.L. Seisedos zena-ren Crónicas del Bidasoa, 821 orrialdez osatzen den liburu mardula eta benetan interesgarria inguru hauetako gaietan oinarritzen denezkero, bereziki bertako seme-alaba ospetsuen berriak eza-gutu nahi dituenarentzat.

Baztan haranetik hasi eta herriz-herri itsasalderai-no zabaltzen delarik aurkezten ditu pertsonaia askoren berriak, Bidasoa aldean jaioak edo bertan bizi izan direnak, ikertzaile, historiagile, idazle, artista, artesau, musikari, folklore, bertsolari, kirol-tzale eta bestelako entzute berezia lortu zutenak hor daude. Eta orain, bilduma honi esker, inguru haie-tako historiarako geldituko direnak.

Besteak beste, hor ditugu Maurizio Elizalde, Julian Santxotena, Jose Ibarra, Martin Elso, J.M. Almandoz, Braulio Jaimerena, Aita Jorge Riezu, Josefa Azan, Ramona Larraia, Pedro Ziga, Joxepa Iñigo, Zesar Agirre, Eusebio Arregi, Eusebio Arregi, J.I. Telletxea Idigoras, Eugenio Urroz, Nikolas Txoperena, Aurita Osuna, Martzelino Bergara, Pepe Yantzi, Luis Taberna, Migel Arozamena, Bizente Lanz, Ramos Sorabe, Isidro Fagoaga, Joakin Goya, J.M. Elgorriaga "Garaiar", J. Caro Baroja, Juan Larramendi, Alfonso Yantzi, J.M. Martija, Emilio Navas, Maria Juncal

Labandibar, Luis de Urantz, Berta Iruretagoiena, Luis Vallet, Montes Iturrioz, Bienvenida Emazabel, Xanin Olagibel, Teodoro Araneta, Maria Valverde Gal, Patxi Gamborena, Antonio Zulaika "Tximi", Jorge Oteiza, Bernardino Bienabe, Pakita Orendain, Sara Soto, Maritxu Anatol, Maritxu Anatol, Nikolas Arruabarrena, Victoriano Juaristi, Leandro Agirretxe, Juan Jose Ugarte, David Esnal, Dolores Salís, Jose Antonio Loidi, Patxo Rodríguez Saura, Luis Tolosa, Gillermo Azpiazu, Juanito Larrarte, eta abar.

Baina, jakina, Hondarrribikorik ere ezin zen falta eta hor agertzen zaizkigu beraien zaletasunak eta ekintzak agerraraziz: Frantzisko Sagartzazu, Pedro Lapitz, Alberto Lasa, Florentino Portu, Fernando Artola "Bordari", Maximo Sagartzazu, Frantzisku Olaskoaga, Lazaro Olaziregi, Nestor Basterretxea eta abar.

Irakurgai atsegina iruditu zait. Gainera, pertsonaia bakoitzaren bidez inguruetako historia ez ezik jauregi eta herrigintzako arkitekturak biltzen dira bertan.

Juan Luis Seisedos Bouzada zena, ez dut zalantzarik, bere borondaterik hoberenarekin eta zehaztasu-nez aritu zela pertsonaia bakoitzaren inguruko berriak jasotzen. Hala ere, zerbait egiten duen edo-norri gertatzen zaio hutsen bat edo beste egitea; ezer egiten ez duenak hutsik ere ez bai du egiten.



Menaje  
Industrial  
Electricidad  
Copia de llaves  
Tornillería inoxidable

**MARINEL**

Burdindegia  
Ferretería

Beñat Etxepare 12  
Tel. 943 64 17 88  
**20280 HONDARRIBIA**

## Jon Alzaga

- *Urdai azpikoak*
- *Hestekiak*
- *Gaztak*
- *Foies*
- *Edariak*


San Pedro kalea 45      Tel. 943 64 44 70  
**20280 HONDARRIBIA**

Liburuaren 749. orrialdean ari da igaz joan zitzai-  
gun Jose Antonio Loidi Bizkarrondo, Irunen boti-  
kari izan zen erenteriarraz, eta zerbait harriritu  
utzi nau euskarazko lehen eleberraren egiletzat  
jotzen duelako. Euskararik ez dakitenek edo gure  
literaturaz arduratu ez direnek esaten dituzte  
holakoak. Hori adieraztean, bere *Hamabost egun  
Urgain*'en (1955) eleberriaz ari da. Behar bada,  
euskarazko lehen polizi eleberririk esan nahiko  
zuen. Era hortara, non gelditzen da  
Daskonagerreren *Atheka gaitzeko oihartzunak*  
(1870)? Gainera, hau ere kontrabando gai-  
z egina zen.

Gure belaunaldiko hainbeste idazlerenak haintzat  
hartu gabe, non gelditzen dira J.B. Elizanburu, J.  
Duvoisin, J.M. Etxeita, A. Apaolaza, P.Zamarripa,  
Tomas Agirre "Barrenoro", A. Anabitarte, R. M.  
Azkue, Txomin Agirre, J.A. Irazusta, J. Izagirre  
eta beste zenbaitek idatzi zituzten eleberririk?

Hala ere, esan beharra dut, hutsune hori gora-  
behera, ohar honek ez duela ukatzen Seisededos  
zenaren lan bikaina. Gehiago esango dut, "Luis de  
Uranzu" Kultur Taldeak argitaratu duen *Crónicas  
del Bidasoa* deritzan liburu hau edonorri gomenda-  
tzekoa dela.

JUAN SAN MARTIN



**EROSLE**  
**CHARTER SUNDUNDEGI**

Telf. 943 64 15 40  
 Santiago kalea, 17  
 20280 HONDARRIBIA

**TRUCK** DISCOTECA  
 HONDARRIBIA  
 Foru Kalea

*Kaizar* Pub  
 Almirante Alonso Kalea, 12